

Kultura

Belako laukoteak zabalduko du, datorren eguaztenean, Kantuaren Kantoia > 11



McDonald'sen irekieragaz, Abadiñok hanburbesategi bi izango ditu laster

Metro gutxian zabalduko dituzte bi jatexe: Burger King Hiper Eroski ondoan eta McDonald's Graficas Berrizen eraikinean

Martitzeneko osoko bilkuran Burger Kingek Abadiñoko Hiper Eroskin zabalduko duen hanburbesategiaren inguruan galdetu zion Bilduk Jose Luis Navarro alkateari. Alkateak, McDonald'sek ere herrian zabalduko duen janari lasterreko jatetxearen in-

guruko informazioa jakitera eman zuen. Graficas Berriz enpresa zenaren eraikina bota, eta berri bat eraikitzeko asmoa dute. Jatetxeak pisu bi izango ditu, eta 24 orduz zabalik egongo den McAuto zerbitzua izango du. > 6

“Memoriagaz betetzeko espazioa” Kurutziagan

Oroimenerako eskultura inauguratu dute Durangon. “Memoria eta hausnarketarako gunea” dela azaldu dute sortzaileek. > 8



Kepa Aginako

Raymond Villalbaren aita Durangon bizi izan zen eta Gurseko kontzentrazio-esparruan egon zen. ‘Agurrik gabeak’ ekitaldian hitza hartu zuen.



946 216 491 | Antso Estegiz, 1 Durango

I U N I K
ILEA PAINDEGIA

-20%

Azaroan
%20ko deskontua
ile eta estetika lanetan
Kontaketa eta diagnostikoaren
bitartez zuro estilora moldatzen gara

Ordutegia	
Astelehena	14:30/20:30
Asteartetik ostiralarera	09:30/20:30
Larunbata	08:00/14:30

Durango > 3

Ezkontza Azoka antolatuko dute Dendak Bai eta Dendariak-ek

Durango > 3

Gasteizerako linea hobetzeko inplikazioa eskatu diote udalari

Elorrio > 2

Azaroan hasiko dira kanpoko igerilekuak eraikitzen

Otxandio > 6

Euskal mitologiaren inguruko jaia antolatuko dute zapatuan

Herririk herri

> ELORRIO

Azaroan hasiko dira kanpoko igerilekuak eraikitzen Elizalden

Kanpoko igerilekuen obra adjudikatu du udalak; bederatzi hilabetea amaitzea aurreikusi dute

> MARKEL ONAINDIA

Elizaldeko kanpoko igerileku berrien obra adjudikatu du Elorrioko Udalak, eta azaroan bertan hasiko dira beharrean. Construcciones Olabarri enpresak edukiko du lanen ardura, eta bederatzi hilabetea amaitzea aurreikusi dute. 991.457 euroko aurrekontua daukate; gobernu taldeak azaldu duenez, lizitazio sasoian baino %25 txikiagoa da diru kopurua.

Adjudikazioa udalbatzarrak onartu zuen joan zen asteko osoko bilkuran. EAJk eta PPK egin zuten alde, eta Bilduk kontra. Koalizioaren izenean, Jon Ander Graciak esan zuen ez

daudela igerilekuak egitearen kontra, baina bai proiektu horren aurka. Kostu ekonomikoa berbagai izan zuen: “Etorkizuna baldintzatuko du. Putzu ilun bat izango da etorkizunean herria kudeatuko dutenentzat”.

Horrez gainera, igerilekuak egin ala ez erabakitzeke partaidetza prozesua kritikatu zuen Graciak: “Gure ustez, propaganda hutsa izan da”. Udalak inkestak egin zituen telefonoz eta kalean karpa bat ipinita. Joseba Mujikak (EAJ) proiektua defendatu zuen, baita parte-hartze prozesua ere. Bere ustez, herritarrek eman dute iritzia, eta horri balioa eman behar



Elizaldeko kirol eremuan egingo dituzte kanpoko igerilekuak.

zaio. 208 ekarpen jaso zituzten, eta %80 aldekoak izan ziren; telefono inkestetan, lautik bat agertu zen alde, eta hamarretik bakarra kontra. Iritzia jasotzeko prozesuaren ostean, uztailen

Bildu: “Putzu ilun bat izango da etorkizunean kudeatuko dutenentzat”

onartu zen ofizialki kanpoko igerilekuak egitea.

Hiru igerileku egongo dira Elizaldeko instalazioan. Udalak herritarren topagune izatea gura du.

Negoziaketek berriro egin dute kale Nanuk enpresan

> M.O.

Transportes Nanuk enpresako arduradunak eta grebalaria berriro batu dira negoziatzeko, baina oraingoan ere ez dute akordiorik lortu. Grebalariek esan dute enpresa hitzarmena adostuta eduki dutela, aparteko sarien eta soldataren jaitsieraren inguruan ados ipinita. Kaleratutako langilea berriro onartzea epaitegietan ebatzi dadila

Enpresak kaleratua berriro onartzeko eskaera eskubidea ukatu duela kritikatu dute

proposatu dute beharginen ordezkariak, baina enpresa ez ei da ados agertu. Enpresak kaleratua berriro onartzeko eskaerarako eskubidea ukatu diola esan dute. Horrek, langileen ustez, greba eta kaleratzea lotuta daudela islatzen du.

Grebalariek esan dute hainbat proposamen egin dituztela kaleratutako beharginaren inguruan: beste lankide bat kalera joateko prest ei zegoen, baina enpresak ez zuen onartu.

Partaidetza prozesu bi, aurrekontu bakarrerako

Atzo, gobernu taldeak egindako zirriborroa aurkeztu zuten batzar zabalean

> M.O.

2014rako udal aurrekontuak zehazteko prozesu parte-hartzaile bi daude martxan Elorrioren. Alde batetik, Bilduk urriaren 15ean hasitakoa. Bestetik, udaleko gobernu taldeak (EAJ) atzo martxan ipinitakoa. Bilduk kritikatu du ez duela udalaren bidez garatuko den prozesuaren inongo berririk.

Gobernu taldeak egindako zirriborroa aurkeztu zuten batzar zabalean, atzo. Azaroaren 7an

eta 8an tailerrak egingo dituzte, eta 18an aurkeztuko dute azkeneko dokumentua. Bitartean, azaroaren 11n eta 14an, informazioa emango dute kalean ipinitako karpa batean. Herritarren iritziak aztertuko dituztela esan dute gobernu taldeko ordezkariak: “Udalak kudeaketa gar deneko eredu parte-hartzaile baten aldeko apustua egin du”.

Bilduk eztabaida saio bi egin zituen 30 lagunen parte-hartzeagaz. “Pozik gaude, kontuan

edukita zenbat jende hurbildu den udalak antolatutako bestelako prozesuetara”, esan dute. Egundotan inkesta bat banatuko dute etxerik etxe, eta emaitza guztiakin proposamen bat idatzi eta aurkeztuko dute.

Partaidetza prozesua uda aurretik hasiko zela iragarri zuen gobernu taldeak. Bilduk esan du iaz koalizioa kritikatu egin zutela prozesua urrian hastearren, eta aurten EAJ bera dela berandu dabilena, azaroan hasita.

Udal tasak %2,2 igotzea onartu dute EAJren botoekin

> M.O.

Udalak 2014rako tasak onartu zituen joan zen asteko udalbatzarrean. Erabakiaren ondorioz, tasak %2,2 igoko dituzte. EAJk bakarrik defendatu zuen proposamena; Bilduk kontra egin zuen eta PP abstentitu egin zen.

Idoia Buruagak (Bildu) adierazi zuen zergen politika progresiboa aplikatu gurako luketela, eta datorren urterako, alderdiek hori elkarrekin garatzea proposatu dutela batzordean. Joseba Mujika alkateordeak (EAJ) zehaztasun falta egotzi zien: “Ahoa betetzen zaizue progresibitatearen izenean, baina ez duzue ezer zehazten”. Mujikak azaldu zuen bere ustez badagoela progresibitatea euren proposamenean, etxebizitzaren balioaren arabera Ondasun Hiegizinen gaineko Zerga gutxiago edo gehiago ordainduko delako. Buruagak erantzun zion etxe bloke berean bizi direnek berdin ordaindu beharko dutela, eta errentak desberdinak direla etxerik etxe. EAJk azaldu zuen hobariak egongo direla gutxien kutsatzen duten ibilgailuentzat eta ibilgailu historikoentzat. Bilduren ustez, ibilgailu historikoek ez dute hobaririk behar.

Ludoteka Iturri kultur etxera lekuz aldatzeak eztabaida sortu du

Gabonetan egingo dute aldaketa, dirua aurrezteko helburuagaz

> M.O.

Udalbatzarrean eztabaida piztu zuen Ludotekaren harira. Ludoteka Iturrira–Intxorta aisialdi taldearen lokalera–lekuz aldatzea ebatzi dute, dirua aurrezteko helburuz. Fernando Azkaratek (EAJ) azaldu zuen zerbitzua defizitarioa dela, eta aldaketagaz 25.000 euro aurreztuko dituztela.

Antza denez, ume bakoitzeko 2.300 euro ordaintzen ditu udalak. Iturrira eroanda, alokairu gastua kenduko da. Azkaratek esan zuen teknikarien txostenak aldekoak direla. Gabonetan egingo dute aldaketa, eta ekainera arte proban egongo da.

Bilduk esan du aparejadoreak ez dakiela ezer intsonoriza-

tzeaz, eta hori beharrezkoa dela. Gogoratu dute zaratengatik atera zutela ludoteka Iturritik, liburutegian kexak egon zirelako. Obra garestiago irtengo dela ohartarazi du. Koalizioaren ustez, “EAJk ludoteka hiltzen utzi gura du”. Gaineratu dute udalak ez duela ludotekaren promozio egokirik egin.

> DURANGO

Gasteizerako linea hobetzeko, inplikazioa eskatu diote udalari

Ugari dira zerbitzuari eginiko kritikak; azkenaldian baldintzak txartu ei dira



Berrioizabal eta Rozas berbetan, udalbatzar aretoan, joan zen martitzenean.

> MARKEL ONAINDIA

Durango-Gasteiz linea betetzen duen autobusaren hainbat erabiltzaile haserre eta kexu dira, eta zerbitzuaren kalitatea kritikatu dute. Horietako bik, Alaitz Berrioizabalgoitiak eta Nekane Rozasek, berba hartu zuten joan zen asteko udalbatzarrean. Eskaera ez da berria; duela urtebete hasi ziren arazoaren berri ematen. Udalari inplikazioa eskatu diote.

Ugari dira Gasteizerako autobusaren zerbitzuari eginiko kritikak. Autobusak ez dira orduro

irteten; egunean zazpi bidaia bakarrik. Gainera, azkenaldian baldintzak txartu egin ei dira. Atzerapenak, aurrez kontsultatu bako ordutegi aldaketak, matxurak –ordezkorik ez dute ipintzen–, autobusak zaharkituta,

2012ko maiatzean aurkeztu zuten lehenengo kexa Herriarren Arretarako Zerbitzuan

zikinkeria, berogailurik ez, aire giroturik ez... Alsa enpresak dauka zerbitzuaren esleipena, eta beste urtebetez horrela izango da. Enpresak eskainitako zerbitzuaren kalitatea, gaur eguneko zerbitzu publiko batetik “oso urruti” dagoela kritikatu dute. Antza denez, erabiltzaile asko botata geratu dira sarritan, autobusik barik. Eta, ezin dute erreklamazio zuzenik egin enpresaren aurrean, hemen ez dauka-eta bulegorik.

Berrioizabalgoitiak eta Rozasek 2012ko maiatzean aurkeztu

zuten lehenengo kexa Herriarren Arretarako Zerbitzuan, 160 sinadurak babestuta. Aurtengo martxoan ere udaletxean idatzia aurkeztu zuten, inolako erantzunik jaso ez zutela ikusita. Egoera aldatu ez, eta udalbatzarreara joatea erabaki zuten. Autobusa pasatzen den beste herrietako –Izurtza, Mañaria, Abadiño, Otxandio eta Legutio– ordezkariekin batera lan egin dezala eskatu zioten udalari.

%80, durangarrak

Durango-Gasteiz linea Arabako Foru Aldundiaren eskumenekoa da. Baina, gutxi gorabehera, erabiltzaileen %80 durangarra da. “Erabiltzaileen gehiengoa Durangokoa izanda, udala inplikatzeko gura dugu”, esan dute. Gainera, aldarrikapenaren tamaina handituko litzatekeela ondorioztatzen dute: “Beste herriak badabiltza mugitzen, bai-

na herri txikiak dira. Uste dugu Durangok indar gehiago egin ahalko lukeela”.

Alkatearen erantzuna

Erabiltzaile biek, inplikazioa eskatzeaz gainera, gutxienez erantzun bat edukitzea gura zutela esan zuten udalbatzarrean. Aitziber Irigoras alkateak azaldu zuen hamabost egun lehenago eurretako batez beste berbetan egon zela, eta aurreko astean Arabako Aldundiagaz ere hartu-emanetan egon zela. Adierazi zuen, momentuz, erantzuna ezezkola dela, ezin dela ezer egin, baina eskean jarraituko dutela.

Protesta, herririk herri

Uztailean protesta egin zuten herririk herri, Durango eta Gasteiz oinezko martxa batez lotuta. *Garraio publiko eta duina orain* lemapean egin zuten ibilbidea 30 bat erabiltzailek.



Autobusak zaharkituta eta zikin daudela kritikatu dute.



Oarbeaskoa eta Ibañez, hitzarmena sinatzen.

Ezkontza Azoka antolatu dute Dendak Bai eta Dendariak elkarteek

Hitzarmena sinatu dute elkarteek, Ezkontza Azoka batera antolatzeko

Durangoko Dendak Bai eta Zornotzako Dendariak merkatarien elkarteek hitzarmena sinatu dute, hemendik aurrera Ezkontza Azoka batera antolatzeko. Elkartek bietako presidentek sinatu dute akordioa: Guillermo Oarbeaskoak durangarren izenean, eta Ricardo Ibañezek zornotzarren partez. Hitzarmenaren lehenengo fruitua aurtengo

go azoka izango da. Azaroaren 15, 16 eta 17an ospatuko da Durangoko Landako Gunean.

Kostuak merkatu eta azoka indartzeko helburuz batu dira elkarteak. Ezkontza Azokaren aurreko edizio biak Zornotzan ospatu dira, *Amore* izenagaz. Aurtun, *D'Amore* izango da, Durangoren marka gehituta.

Ezkontzekin zerikusia daukaten 40 bat erakusmahai egongo dira gutxienez: arropa dendak, ile-apaindegiak, bitxi-dendak... Gainera, bataia eta jaunartzeetarako zerbitzuak ere eskainiko dituztela esan dute. Azokak sektorea indartzeko duela uste dute. Egundik horietan, 10.500 lagun batzea espero dute, prentsurrekoan esan dutenez.

A. Urreta podólogo

Alina Urreta Jainaga

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

URTXINTXA

HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK

Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017

> DURANGO

“Estrasbrugok esan du Espainiak marra gorri bat zeharkatu zuela”

Landaren ustez, Estatuak arbitrarioki jokatu du ‘Parot doktrina’-ren gaian

> MARKEL ONAINDIA

Durangon bizi da Jon Mirena Landa (Portugalete, 1968). Zuzenbide Penaleko irakaslea da, eta 2005etik 2009ra Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen zuzendari izan zen. ‘Parot doktrina’-ren inguruan Estrasburgok hartutako erabakia izan du berbagai. Durangaldeko bost presori eragingo die neurriak: Anton Lopez, Felix Zabarte, Ramon Aldasoro, Juan Jose Legorburu eta Iñigo Akaiturriri.

Zelan kokatu daiteke Estrasburgok emandako ebazpena? Estrasburgo ez da edozein auzitegi. Giza eskubideen gainean autoritate gorena dauka, eta egunero kontrolatzen ditu estatuak. Areto Handiak, autoritate osoz, Areto Txikiak esan zuen guztia berretsi, eta egonkortu egin du. Hemen ez dago inprobisaziorik edo teoria konspiratzailerik. Gauzak txarto egin ziren: aplikatu ezin zen doktrina bat aplikatu zen atzera eraginez. Estrasburgok esan du Espainiako Estatuak marra gorri bat zeharkatu zuela, eta bidea desegin behar duela. Estatuak arbitrarioki erabili du denok eman diogun boterea.

Beraz, interes politikoak eragina izan du...

2003an astindu ederra egon zen iritzi publikoan, zigor guztiak beteko zirela aldarrikatuta. Baina juristok bagenekien lege horrek ezin zuela atzerako efekturik eduki. Baziren hainbat ETako kide, 80ko hamarkadan delitu astun eta larriak egingakoak, ateratzeaz zeudenak. Ateratzen hastean, jadanik altxatutako olatu horrek presioa eragin zuen. Legea ezin zenez atzera eraginez aplikatu, Auzitegi Gorenaren bitartez saiatu ziren, interpretazio bat aldatuta.

Zer urratu du Espainiak?

Erdi Aroa gainditzean, legeztatun printzipioa eskubide bilakatu zen. Alegia, delitu bat egin baino lehen guztiok daukagu delitua zer den, eta zein zigor dagokion jakiteko eskubidea. Ezin dena da bidean zigorraren punta aldatu. Hori izan da Estatuak egin duena. Eskubide hori estatu demokratikoen zutabea da.

Auzitegi Nazionala hasi da kasuak aztertzen. Zelan baloratzen duzu bere jarrera?

Areto Txikiak epaia eman zutenean sortu zen zalaparta kon-

tuan hartuta, Auzitegi Nazionalak, ofizioz, bere ekimenez oso arin bete izana berri ona da. Nik uste, eragile juridiko gehienek espero zutena zela luzamendutan jardutea. Baina ez dute bide ankerrik bilatu nahi izan, agindutakoa bete baino beranduago egiteko. Estrasburgoko epaie-tan, efektua izaten da kasuagaz lotuta, baina egoera berdinean dauden kasu guztiengana hedatzekoa. Betetzeko diligentzia berbera izan beharko litzateke.

ETAren biktimak batzuk hase-rretu egin dira.

Estatuaren egitekoa ez da bakarrik biktimen interesak defendatzea, interes publiko guztiak defendatzea baizik. Biktimak aintzat hartu behar dira, eta errespetuz tratatu. Ahal den neurrian, euren sufrimendua konpondu behar da. Baina batzuetan esaten dutena ezin da automatikoki politika batean islatu. Iragazkia jarri behar zaio, interes publiko bilakatu dadin.

Presoen gaian bide bat zabal-tzen lagundu dezake epaiak?

Lagundu beharko liguke. Nire ustez, bidea zabaltzeko gakoetako bat espetxeetako politika blo-



Landa: “Nahi nuke pentsatu epaiak lehen fase bat zabalduko duela”.

ke bakar lez ez ulertzea da. Esaterako, makrosumarioen bidez kartzelaratuak alderatu ditza-gun hildako baten kasuarekin; ez da gauza berbera, ezin dugu dena zaku bereberean sartu. Pentsatu beharko genuke delituen larritasunagaz mapa bat egitea, eta horri buruz berbetan hasi; justiziak hori eskatzen du, baina baita estrategiak ere. Zelan apurtu behar den dispertsioa, giza eskubideen kontrakoa delako, baina baita zentzurik ez daukalako ere; zelan pasatu litezkeen hirugarren gradura...

Faseka joan behar dugu. Nahi nuke pentsatu epaiak lehenengo fase bat zabalduko duela.

Beraz, balio handia ematen diozu ebazpenari...

Egon dira erreakzioak Estatuko ordezkarien partetik, epaitegien aldetik... Ikusi da Ezker Abertzaleak erantzukizunez esan duela: “Ikusten dugu honek mina sortu dezakeela biktimengan. Gure poza gorde dezagun esparru pribaturako”. Uste dut ekarpen positiboa dela. Ez al da hori laborategi txiki bat?

Tratu txarrek sortutako egoeratik irteteko laguntza

> M.O.

Andereak elkarteko boluntario bi laguntza sozialerako agente izango dira. Hain zuzen ere, bi-tartekari lanak egingo dituzte tratatu txarrek jaso dituzten emakumeen eta erakundeen artean. Emakume horiei tratatu txarren egoeratik irteten laguntzea da ekimenaren helburua. Bizkaiko Foru Aldundiak sustatzen duen Tartekari Sarearen baitan garatu dute egitasmoa.

Boluntario horiek anonimotasunean egingo dute lan, eta artatuko dituzten emakumeei ere konfidentzialtasuna bermatuko ei diete. Emakumeen kontrako indarkeria kasuetan espezializatutako profesionalak babestuko dituzte boluntario biak. Esaterako, formazioa jasoko dute. Boluntarioekin hartu-emanetan ipini gura dutenek *andereak@hotmail.com* helbide elektronikora idatzi ahal dute.

> ZALDIBAR

Hil honetan egingo dute Neguko Azoka

Azaroaren 17rako antolatu dute nekazal azoka

> I.E.

Zaldibarko Udala azaroaren 17rako antolatzen dabilen Neguko XV. Azokan parte hartzeko eskaria aurkeztu dute 31 nekazarik. Durangaldeko, Lea-Artibaiko eta Busturialdeko nekazariak egin diete deialdia.

Antolatu zuten lehenengo urteetan azaroan burutzen zuten Neguko Azoka, Zaldibarren.

Azken urteetan, atzeratzen joan da hitzordua, eta aurten egin ez den arren, urtarrilean antolatu izan dute. Baina urte hasiera ez da sasoirik emankorrera gure ortuetan, eta hasierako datetara bueltatzeko apustua egin du udalak. Nekazal ekoizpen handiagoa izaten den sasoiria, azarora, ekarri dute azoka, beraz, berriro.

Azaroaren 17an, Euskal Herria etorbidean ipiniko dituzte Neguko XV. Azokako postuak. Besteak beste, barazkiak, fruitak, txakolina, ogia, gozoak, ez-tia zein gazta erosi ahal dute bisitariek, bertan.

Udalak antolatzen duen azokan parte hartzeko eskaria aurkeztu dute 31 nekazarik

Ohi bezala, produkturik onenak aukeratzeko lehiaketa egingo dute Neguko Azoka horretan. Udalak izendaturiko herritarren epaimahaiak erabakiko du zeintzuk nekazari saritu.

> BERRIZ

Zazpi familia dabilta Oka kontsumo taldean

Eguaztenetan hartzen dituzte barazki eta produktu ekologikoen otzarak; ekimena zabalik dago

> AMAIA UGALDE

Eguazten honetan kipula, patatak, azenarioa, eskarola, brokolia, azalorea... sartu dira Oka kontsumo taldeko barazki otzaretan. Orozketako Iparragirre baserriko produktuak dira, Jon Bereziartua eta Alazne Intxausteren ortukoak. Berrizko zazpi familiek parte hartzen dute otzaren banaketan.

Barazki ekologikoz osatutako otzaraz gainera, inguruko ekoizleen produktuekin ere egiten dituzte otzarak: Etxanon egindako gazta, Iurretan egindako ogia, Errigoitiko esnea... Nekasare kolektiboko ekoizleek parte hartzen dute otzaretan.

Jon Bereziartuak azaldu duenez, gustura dabilta ekimenagaz: “Saiatzen gara kantidad

gutxi sartzen, baina ahalik eta gauza gehien sartzen”. Oilategia ipintzekotan dira, arrautzak banatzen hasteko.

Anbulatorio zaharrean

Otsailean hasi zen martxan Oka kontsumo taldea, eta eguazteneko egiten dute otzaren banaketa, ambulatorio zaharrean, 19:30etik 20:30era. Barazkien otzarak 10 euro balio du, eta 2,5 euro garraio eta gestio gastuek. Gainontzeko produktuak euren prezioan saltzen dituzte. Bakoi-tzak gurago duen maiztasunagaz hartu ditzake otzarak. Hasieran, hiru hileko proba egiten dute kontsumitzaileek, “kantitateekin zelan moldatzen diren ikusteko”. Informazio gehiago 671 055 367 telefonoan.

OSASUN GIDA



FISIOTERAPIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,
behea eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13

Oreka
Idurre Zabala Amezua

**FISIOTERAPIA
ETA ERREHABILITAZIOA**

*Erditze aurreko eta ostekoa, txizari ezin
eustea, traumatologia, kirola, auto istripua,
drainatze linfatikoa (basektomia ondoren),...*

Iturriza, 44 - behe ezkerre
48240 BERRIZ

Tel.: 946 225 593



PSIKOLOGIA

JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antzietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11



PODOLOGIA

JON GERRIKAETXEBARRIA

Gaixotasunak - Ortopedia
Oin kirurgia

IMQ - SANITAS - ARESA

Ermodo, 2 - 1 eskuma
48200 DURANGO

Tel.: 946 201 100

RPS: 108/13

GOIATZ MURUA
PODOLOGIA KLINIKA

GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOA

*Kiropodia, Onikopatia, Alterazio
dermatologikoak, ibilerako alterazioak*

Monagotorre, 4 - behea
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630



ESTETIKA

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaedurango.com

Laser berria:

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

*Obesitatea-zelulitisa,
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...*

Txatxiena, 6
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

RPS: 16/09



ODONTOLOGIA

**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2 - C behea
48200 DURANGO

Tel.: 946 819 951

RPS: 145/13

J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

RPS: 112/13



OPTIKA

ZENTRO OPTIKOA

*Teknika aitzindariak, kontaktologia, haurren
ikusmena, ikusmen terapia, audiometria,
NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA*

Arkaraz, 3
48240 BERRIZ

Tel.: 946 225 099

RPS: 162/13

> MALLABIA**Abizenak euskalduntzeko kanpaina martxan da****> JONE GUENETXEA**

UEMAketa udalak abizenakeus-kalduntzeko *Guk abizena, zuk?* kanpaina jarri dute martxan. Euskal abizena modu ofizialean eta leku guztietan euskaraz idatzita izan gura dituenak jarraitu beharreko pausoak ezagutzera eman dituzte. Lehenengo, erregistro zibilera edo bake epaitegira joan beharra dago, eta abizena euskal grafiaz ipini gura dela azaldu. Bertan emandako eskaera orria dagokien datuekin bete behar da ondoren. Hainbat agiri ren fotokopiak eman behar dire-

Lehenengo erregistro zibilera edo bake epaitegira joan beharra dago

la gaineratu dute: nortasun agiria (adinez nagusia ez denak, gurasoena ere beharko du), hitzez hitzeko jaiotza ziurtagiria (epaitegian eskatuta), errolda agiria, familia-liburua eta seme-alaben nortasun agiria.

> ABADIÑO**McDonald'sek bi solairuko jatetxea zabalduko du**

Multinazionalak astean aurkeztu du Muruetan jatetxea zabaltzeko egitasmoa

> ITSASO ESTEBAN

Martitzeneko ohiko udalbatzarreko galdera eta eskarien tartean, Bilduk Bugar King jatetxeak herrian zabaldu gura duen jatetxearen proiektuari buruzko azalpenak eskatu zizkion Jose Luis Navarro alkateari. Alkateak proiektu horri buruzko azalpenak eman ostean, zabaldu zuen albisteak: jatetxea zabaltzeko proiektua aurkeztu du McDonald'sek ere, astean.

Murueta kalean zabalduko du McDonald's enpresak bi solairuko jatetxea. Enpresaren asmoa, Graficas Berriz enpresa zegoen eraikina bota, eta berria eraikitzea da. Proiektuak 500 metro koadroko jatetxea eta 25 autorentzako aparkalekua aurreikusten ditu, eta janaria autotik bertatik erosteko zerbitzua ere eskainiko omen dute.

Burger King enpresak jatetxea zabaltzeko asmoa daukala

prentsari irakurritan jakin zutela kritikatu zuen Bilduko Saioa Zuazubizkarrek. Gobernu taldeak multinazional horren elikadura eta ekonomia eredua bultzatzea ez duela ulertzen adierazi zuen Bilduk. "Udalak ez dezala horrelako proiekturik baimendu" eskatu zuten. "Legearen baldintzak betetzen badituzte, guk ezin dugu jatetxea zabaltzea oztopatu", erantzun zuen Navarro alkateak.



Enpresaren asmoa Graficas Berriz zegoen eraikina bota, eta berria eraikitzea da.

Udal tasei eta zergei %1,5eko igoera orokorra ezarri diete**> I.E.**

Hiru urtean igo barik mantendu ditu zerga eta tasak Abadiñoko Udalak. Martitzeneko udalbatzarrean, baina, gobernu taldearen eta EAJren aldeko bozkekin onartu dute 2014 urteko zergak eta tasak %1,5 igozteak. Igoera orokor horren kontra bozkatu zuen Bilduk, zerbitzu guztiei igoera bera aplikatzea ez dutela ondo ikusten argudiatuta. "Tasa horiek politika eredu berriak martxan ipintzeko erabili beharko lirateke: etxebizitza alokairua bultzatzeko, enpresa txikiak laguntzeko...", esan zuen Ibai Urrutia zinegotziak.

"Uste dugu herritar guztiek onartzeko moduko igoera dela, ez dela inorentzat traumatikoa izango", azpimarratu zuen, aldiz, Jose Luis Navarro alkateak. Gobernu taldearen berbetan, "udalak eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea mantentzea bermatzeko, erantzukizunez jokatu dugula uste dugu: udalaren gastuek gora eta gora egiten dute, eta diru-sarrerak nolabait lortu behar ditugu: ez dugu beste aukerarik".

> OTXANDIO**Euskal mitologiak herriko kaleak hartuko ditu zapatuan**

Euskal mitologiako pertsonaiek 'bizia' hartuko dute herri ekimearen bidez

> JOSEBA DERTEANO

Hainbat herritarren eta elkarteen borondatezko lanari esker, zapaturako Mitologia Jaia antolatu dute. Euskal mitologiako pertsonaiek liburutatik kalera ateratzea dute helburu. 12.30ean umeentzako jolasak egongo dira, eta Euskal Herriko hainbat txokotatik etorriko diren Berbalagun taldeekin herri bazkari egingo dute 15.00etan, Mainon-

don. Ondoren, kalejiran helduko dira plazara, eta 18:30ean, 'Zai Zoi Bele' ekimena hasiko dute Xabier Amuriza eta Uxue Alberdi bertsolariekin. Handik, musikak lagunduta, kalejiran abiatuko dira Aker eta Tartalo pertsonaiek lagunduta. Kalejirak zazpi geraleku izango ditu, eta bakoitzean, herriko zazpi elkartek edo lagun taldek euskal mitologiako beste hainbeste per-

tsonaia gaur egunera ekarriko ditu, nork bere modura. Hauek dira pertsonaia: sorginak eta Basajaun (Arkotxe eta gazte asanblada), Odei (Berbalagun taldea), lamiak eta Prakagorri (lagun talde banak), Sugoi (Kementsu), eta Anbotoko Mari (oletarrek). Urduri dantza taldeak, Soinubilek eta batukada taldeek plazan eskainiko duten ikuskitunagaz amaituko da ekimena.

erdialdean amaituko da. Eskolak zapatu goizetan izango dira. Ikastaro horretarako izen-ematea 10 euro da Otxandion erraldatuta daudenentzat, eta 15 euro erroldatu gabekoentzat.

Eskularen ikastaroa azaroan hasi eta martxoan amaituko da. Kakorratz-lanak, *vainica* josteko modua eta malla lako eskulanak egiten ikasiko dira. Izen-ematea 22 euro izango da erroldatuta daudenentzat, eta 27 euro besteentzat.

> IZURTZA**Gimnasia eskolak hasi dira jubilatuen lokalean****> JOSEBA DERTEANO**

Izurtzako Erdoitzako Ama jubilatuen elkarteak mantentze-gimnasia eskolak hasi ditu urrian, eta ekainera arte luzatuko dira. Martitzen guztietan batzen dira jubilatuen lokalean, 17:00etatik 18:00etara, monitore aditu baten gidaritzapean gimnasia ariketak egiteko.

Ikasturte berrian (hainbat urtez ari dira antolatzen) zortzi bat lagun batzen dira martitzenenero, baina ez dela ekimen itxia adierazi du Karmelo Irastorza elkarteko presidentek, eta gura duena batu daitekeela klaseetara. Beraz, ez da derri-gorrezko baldintza elkarteko kidea izatea.

Gimnasia eskoletan parte hartu gura duenak nahikoa du martitzenetan, eskola orduetan, jubilatuen lokalera joan, klaseak hartzeko interesatuta dagoela adierazi, eta bakoitzari dagokion kuota ordaintzea. Adin tartean ere ez dute mugarik. Edadetuago zein gazteago, denei irekita dagoela adierazi dute.

> MAÑARIA**Jaietako argazkien bideoa eskainiko dute hilaren 8an****> M.O.**

Mañariko Jai Batzordeak aurtengo jaietako argazkien proiektzioa eskainiko du hurrengo bari-kuan, hilaren 8an. Andramarietako ekitaldietan lau bat lagun ibili ziren argazkiak ateratzen, eta horiekin guztiekin bideo bat egin dute jaien antolatzaileek. Iluntzeko 20:00etan proiektatuko dute bideoa, udaletxeko bilkura aretoan. Gero, luntxa ere egongo dela azaldu dute.

Iluntzeko 20:00etan proiektatuko dute bideoa, udaletxeko bilkura aretoan

Jaietan bizitako momentu onak gogoratzea da ekitaldiaren asmoa. Gainera, esan dute argazki horiek ez dituela jende askok ikusi. Beraz, horretarako aukera eman gura diete. Uste dute jendearen interesak dela; iaz ere egin zuten, eta aretoa bete zela adierazi dute.

Askotariko ikastaroen izen-ematea irekita udaletxean

Datorren astelehena da izena emateko azken eguna

> JOSEBA DERTEANO

Udalak hiru ikastaro abiatuko ditu laster, eta horietan izen-ematea azaroaren 4an, astelehenan, amaituko da. Informatika, emakumeentzako autodefentsa eta eskulanak dira hiru ikasta-

roak, eta udaletxean eman daiteke izena. Informatika ikastaroa doakoa da, eta KZgunean eskainiko da urteko hainbat sasotetan. Autodefentsa ikastaroa emakumei zuzenduta dago, eta azaro erdialdean hasi, eta abenduaren

> DURANGALDEA ASTEON

Elorrioko anbulantzia zerbitzua proba bat baino ez zen

Asteburuetarako Gurutze Gorriaren zerbitzua ipini zuten martxan irailan. Udalak azaldu zuen Gurutze Gorria Aldapebeitian egongo zela, eta anbulantzia zerbitzua eskainiko zuela Elorrion. Hasiera batean, ez zuen esan epe mugarik edukiko zutenik. Orain, esperientzia pilotua izan dela eta amaitu egin dela adierazi du.

Naturbideak ekimena Conama sarietan aurkeztu du Elorriok

Urtero antolatzen dira Conama sariak, jasagarritasunaren alde udalek garatzen dituzten ekimenak saritzeko lehiaketa. Elorrioko Udalak Naturbideak ekimena aurkeztu du bertan. Ibilbide homologatuek osatzen dute ekimen hori, eta herriko ondare kultural, natural eta paisaia-ondarea indartu gura dute.

257.233 zenbakia ‘Salerosketak be euskaraz’-en irabazle

Salerosketak be euskaraz ekimenari dagokion zazpigarren iPad elektronikoaren zozketa egin berri du ITG taldeak. Katy oinetako dendan banatutako 257.233 zenbakia duen txartela da hilabete honetan saria jasoko duena. Txartel hori agertu ezean, ordezkotako zenbakia, Montejon banatutako 259.393 zenbakia izan dela jakitera eman dute ekimenaren antolatzaileek.

Traña-Matienako guraso elkartearen azoka solidarioa

Traña-Matienako eskolako gurasoen elkarteak bigarren eskuko azoka antolatuko du azaroaren 29tik abenduaren 1era bitartean. Horretarako, gura duenak produktuak eroan ahal ditu astelehenetik aurrera. Baliabide gutxiko familiei laguntzeko antolatu dute azoka.

> IURRETA

Kolonbia gertuago sentitzeko gonbita

‘Munduko Paisaiak: liburutegiak topaleku’ ekimenean parte hartuko du 5. urtez bibliotekak

> AITZIBER BASAURI

Kolonbiako errealitatera hurbildu, eta herrialde hori gehiago ezagutzeko aukera eskainiko dute Iurretan, azaroaren 17ra bitartean. *Munduko Paisaiak: liburutegiak topaleku* ekimenean eskutik ipuin kontalariak, literatur solasaldiak, eta Kolonbiako perkusioen tailerra antolatu dituzte, esaterako.

Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuak bultzatutako ekimena

da, eta tolerantzia eta gizarteratze kulturala sustatu gura du; Iurretako biblioteka bosgarrenez gonbidatu dute parte hartzera.

Funts bibliografiko eta argazkiek osatutako Kolonbiari buruzko erakusketak abiatu du egitaraua, eta azaroaren 17ra arte luzatuko da. ASOCOLVAS kolonbiarren elkarteak, Kolektiba Colombiak eta herriko hainbat elkartetek lagundu dute ekintzak antolatzen.



Hainbat lagun batu zituen, iaz ere, Aita San Migel plazatik irtendako mendi martxa solidarioak. Iurretako Biblioteka

KOLONBIA			
BATXILERGOKO IKASLEENTZAKO SAIOAK: ‘Giza eskubideak Kolonbian’ (Hizlaria: Kolektiba Colombia)			
Urriak 31 - 20:00 IPUIN KONTALARIA: ‘Deallá’ (Jhon Ardila). Helduentzat.	Marina Santa Coloma	Hilaren 12an: ‘Delirio’ (Laura Restrepo). 13an: ‘Kolonbian bahituta’ (Hasier Huegun, Gari Ubeda).	Familiarentzat. Vladimir Teheran (Grupo Maguaré)
Azaroak 7 - 19:00 ZINE KLUBA: ‘Los colores de la montaña’ (Carlos Arbelaez). Moderatzaile:	Azaroak 8 - 18:00 IPUIN KONTALARIA: ‘Kolonbiako ipuinak’ (Belen Azkarate). 5 urteik gora.	Azaroak 12-13 - 18:30 LITERATUR SOLASALDIAK.	Azaroak 17 - 09:00 MENDI MARTXA SOLIDARIOA, plazatik (izena eman behar da). Zaldi, HEKI, Kimuak.
		Azaroak 15 - 18:00 KOLONBIAKO PERKUSIOA.	

> ATXONDO

Ikusmen eta entzumen azterketen garrantzia berbagai eguaztenean

Lorea Iriondo optikariak hitzaldia eskainiko du eguaztenean, udaletxean

> JOSEBA DERTEANO

Amankomunazgoko Pertsona Nagusien Dinamizazio Sailak antolatuta, Lorea Iriondo optikaria eta optometristak *Ikusmen eta entzumen osasuna* izeneko hitzaldia eskainiko du eguaztenean, 17:00etan, udaletxean. Bertan, adin batetik aurrera, prebentzio moduan, urtero-urtero ikusmen eta entzumen azterketak egiteak duen garrantziari buruz jardungo du.

Izan ere, Iriondoren ustez, prebentzioan dago gakoa: “50 urtetik aurrera oso inportantea da urtero azterketak egitea, adin horretatik aurrera bai entzumenean, bai ikusmenean galera arriskua egoten delako”.

Ikusmenari dagokionez, azken urteetan ikusmenari lotutako arazoak gehitu egin direla gogoratu du: “Adinari lotutako degenerazio makularrari dagozkion kasuak gehitu egin

dira. Eguzkiak zerikusi handia du horretan. Egun argitsuetan eguzkitako betaurrekoak ipintzen ez duen jende asko dago oraindik. Glaukomek edo genetikak ere eragin diezaiokete ikusmenari”, azaldu du Iriondok.

Hitzaldian nork bere etxean egiteko ariketak jasotzen dituen txostena ere banatuko du. Horrela, bista edo entzumena galdu den edo ez neurtu daiteke.

> GARAI

Bertso afarirako txartelak salgai daude

Azaroaren 23an izango da urteroko bertso saioa; joan gura dutenek badaukate izen-emateko aukera

> M.O

Garaiko Udalak eta Trumoitte kultur elkarteak urtero antolatzen duten bertso afaria azaroaren 23an izango da aurten. Azaldu dutenez, bertara joan gura dutenek badaukate izena emateko aukera. Izan ere, txartelak salgai daude udaletxean. Gura dutenek udaletxera bertara deitu ahal dute, 946 816 393 zenbakira. Hoge euro ordaindu

beharko dute interesdunek; ume eta gazteen kasuan, hamabost euro.

Hiru bertsolarik parte hartuko dute ekitaldian. Beñat Ugartetxea mallabitarrak, Eneko Abasolo *Abarkas* iurretarrak eta Fredi Paia algortarrak abestuko dute bertso afarian. Otea-Loran elkartearen izango da afaria, eta horren ostean egingo dute bertsotan.

Solaguren kalea 3
Tel.: 946 814 474
Faxa: 946 215 374
E-mail: urtiaga.sl@terra.es

MATIENA ABADIÑO

urtiaga
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK
ETA BEROGAILUAK, AZULEJU, ZOLADURA,
TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOI
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Durangaldeko Baserritarren Elkartea



DIBA


Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

► Berbaz

Raymound Villalba | Errepublikazale exiliatuen semea | Oloron Saint-Marie, 67 urte

“Erbesteko errepublikazaleen askatasun balioek bizirik diraute Frantzian”

Durango 1936 elkartean ‘Agurrik gabeak’ ekitaldian izan da Villalba. Bere aitak Durangon pasatu zuen gaztaroa, eta ama Gurseko kontzentrazio esparruan ezagutu zuen. Memoria historikoa lantzeko *Terres de memories et luttres* elkartean dabil buru-belarri



> AMAIA UGALDE

Gursetik 18 kilometrora dago Raymound Villalbare jaioterrria, Oloron Sainte-Marie (Biarno, Frantzia). Han memoria historikoa lantzeko elkarte sortu dute, eta, besteak beste, bisitak antolatzen dituzte Gurseko kontzentrazio-esparrua izan zen eremura. ‘Agurrik gabeak’ ekitaldian izan da, Kurutzian ipini duten oroitarriaren inagurazioan.

Aita, Luis, Durangarra zenuen. Zelako bizimodua zeukan gerra aurretik?

Aita 6 urte gaz etorri zen Durangora bizitzera. Hamabi neba-arreba ziren, eta 11 urte gaz arotzeria ikasten hasi zen. PSOEko eta UGTko kidea zen. UGTko batailoi batean Castoraino joan zen borrokatzera. Gero, Bordelera joan zen, eta handik Kataluniara. Errepublikak galdu zuenean, Frantziara heldu, eta pentsatzen zuten han beso zabalik hartuko zituztela, Gobernuaren ezkertiarrek zeudelako. Baina ez zen horrela izan, kontzentrazio-esparruetan sartu zituzten.

Zelakoa zen Gurseko kontzentrazio-esparrua?

Itzela zen. Guztira 32.000 errepublikazale heldu ziren Gursen.

Euskaldunak 5.000 inguru. Kartzela erraldoi bat zen, 400 militar frantses zeuden presoak zaintzeko. 36ko gerran parte hartu zuten nazioarteko brigadetako kideak ere egon ziren bertan.

Zure gurasoek bertan ezagutu zuten elkar.

Ama Asturiasekoa zen. Amagandik zetorkion errepublikazaleasuna: 1934an meategietako iraultzan, armak ezkutatu zituen bere biltegian, eta kartzelan egon zen urtebetez. Horrela, 1939an Frantziara heldu ziren. Hasieran Britainian ibili ziren, eta gero, hegoalderantz bidali zituzten, Gursen. Han, aita ezagutu, eta maitemindu egin ziren.

Bizimodu gogorra izango zuten bertan.

Bai. Latzena judu alemaniarrek eroan zituztenekoa izan zen. 1941ean naziek juduak hiltzea erabaki zutenean, Gursetik sei konboitan eroan zituzten Auschwitz, Mauthausen eta Buchenwaldera, hiltzera. 3.900 pertsona baino gehiago eroan zituzten. Amak kontatu zidan konboiak irten zirenean, andre batek berokia eman ziola. Amak galdetu zion ea zergatik, eta hark esan zion bera zihoan leku hartan ez zuela beharrik izango. Oso gogorra izan zen.

“

Aita Durangora bueltatu zenean orduak egoten ginen Santa Anako eliza aurrean, Artekale eta Barrenkalera begira”

Gerra amaitutakoan zer egin zuten gurasoek?

Gerra amaitu aurretik, ama eta amama Tolosa alboko kontzentrazio-esparru batera eroan zituzten. Hura liberatutakoan Oloron Sainte-Mariara itzuli ziren, eta hango familia baten etxean ezkutatu ziren. Gurasoak gerra amaitu zenean elkartu ziren berriro, eta apirilaren 14 batean ezkondu ziren, errepublikaren urteurren egunean.

Umetan zelan bizi zenuen gurasoen erbestealdia?

Oloron Sainte-Marietako batzarretan ilusioz eta indarrez egiten zuten berba. Beti maletak prest, Espainiara bueltatzeko gogoagaz. Franco hil arte itxa-

ron behar izan zuten horretarako. Euren ez zuten Francoren erregimena onartu gura, eta ez ziren sekula kontsulatu frankista batera joan. Aita 35 urte egon zen Durangogaz ametsetan. 1978an hil aurretik hiru aldiz bueltatu zen Durangora. Gogoan dut orduak eta orduak egoten ginela Santa Anako eliza aurrean, Artekale eta Barrenkalera begira. Itzela izan zen. Amaren herrira joan ginenean latzagoa izan zen. Soto del Barcon, herritarren erdiak hil zituen gerrak, eta amak orduan izan zuen tragedia horren berri.

Terre de memoria et lutte elkartea sortu duzue. Zer lan egiten duzue?

Ahantzuratik atera gura dugu

memoria hori. Mugako bi aldeetako ikasleentzako *Memoriaren ibilbideak* izeneko egitasmoa daukagu, Gurseko kontzentrazio-esparrua ezagutarazteko. Aragoigaz hitzarmena eduki dugu, eta gustatuko litzaiguke Euskal Herriko ikasleak ere programan sartzea. Horrez gainera, master bat prestatu gura dugu hainbat unibertsitatez, Espainiako errepublikazaleek Biarnon zer ekarpen egin zuten ikertzeko. Ekonomia arloan eta borroka sindikaletan lan handia egin zuten 1950 eta 60ko hamarkadetan. Euren askatasun balioek bizirik diraute.

Zer esangura dauka Gurseko kontzentrazio-esparruak inguruko herritarrentzat?

Frantzian garai hartan oso zati-tuta zegoen biztanleria ezkerreko eta eskuineko jendearen artean. Gurseko kontzentrazio-esparruari buruz berba egiteko 1978ra arte itxaron behar izan dugu. Kolaboratu zuten frantse- sen belaunaldia amaitu denean hasi gara lanean. Gero, Gurseko alkateak, nahiz eta eskuinekoa izan, asko lagundu digu kontzentrazio-esparrua atontzen. II. Mundu Gerra amaitu zenean, Frantziako Gobernuak kolaboratzaile eta erresistentziako kideen artean bakea lortzea gura zuen. Gursen pabiloi guztiak bota eta baso bat sortzen hasi ziren. Zortea izan genuen, Alemaniako kontsul bat handik pasatu, eta hura ikusita, Alemaniara joan zelako kontatzera. Han, gerrako sarraskiek pisu handia utzi zuten, eta segituan etorri ziren ingurua eta kanposantua eraberritzera. Frantzian hainbat kontzentrazio-esparru desagerrarazi zituzten, eta ahaztu egin dira.



Eguenean ‘Agurrik gabeak’ ekitaldia egin zuten, Kurutzian. Kepa Aginako.

PLATERUENA

PLATERUENA AZAROA

2013 EGITARAU

www.plateruena.net



www.plateruena.sarrerak.eu

03 DOMEKA



IPUINKONTALARIA

KONTU KANTARI:
MAITE FRANKO

17:30etan. Sarrera: 3€

3ER
3A
RC

20 EGUAZTENA



BERBALDIMUSIKATUA

KANTUAREN KANTOIA
NAPOKA IRIA

20:00etan. Sarrera DOAN

06 EGUAZTENA



BERBALDIMUSIKATUA

KANTUAREN KANTOIA
BELAKO

20:00etan. Sarrera: DOAN

22 BARIKUA



MUSIKAKONTZERTUAK

LOKALETIK AT
ZEBEL (Durango / Rock)
DAMUDOT (Zaldibar / Trashmetal)

22:00etan. Sarrera DOAN

07 EGUENA



MUSIKAZUZENEAN

DURANG(H)OTS
JAM SESSION

21:30etan. Sarrera DOAN

24 DOMEKA



ERROMERIA

AIKO ERROMERIA

19:00etan. Sarrera DOAN

08 BARIKUA



BAKARRIZKETA

IÑAKI URRUTIA
SARA ESCUDERO

22:00etan. Sarrera: 10/12€

27 EGUAZTENA



BERBALDIMUSIKATUA

KANTUAREN KANTOIA
JUPITER JON

20:00etan. Sarrera: DOAN

13 EGUAZTENA



BERBALDIMUSIKATUA

KANTUAREN KANTOIA
AUDIENCE

20:00etan. Sarrera: DOAN

29 BARIKUA



MUSIKAKONTZERTUAK

DURANGOKO AZOKA 013
RUPER ORDORIK

22:30etan. Sarrera: 10/12€

15 BARIKUA



BIDEODOKUMENTALA

TXELU ANGOITIA
"BESTEAREN BEGIRADA"
+ musika zuzenean

20:00etan. Sarrera DOAN

30 ZAPATUA



KANTUZALEENTXOKOA

KANTULAGUN
KALEZ-KALE

13:30etan Santa Anako Elizpetik hasita

16 ZAPATUA



MUSIKAKONTZERTUAK

AFTITUD Hip Hop festival benefikoa.
GASTON BANDITMIC (Senegal); LA HAINE (ZGZ); BIG THIER
BEAT SALAD CREW (EH/Senegal); EL PUTO IOR, BILBO SCRATCH
22:30etan. Sarrera: 8/10€

30 ZAPATUA



MUSIKAKONTZERTUAK

DURANGOKO AZOKA 013
ETEN (tratu txarrak)

22:00etan. Sarrera: 10€ (sarrera + bilduma 13€)

ABENDUAN DATOZENAK: AZOKAKO EKIMEN ETA KONTZERTUAK (IHESKIDE, SU TA GAR, KORRONTZI, EKE, NAZIOEN MUNDUA; ESKOZIA-EUSKAL HERRIA, KANTULAGUN, AIKO,

3ER
3A
RCBFA
DFB
Bilakaia Yara Alkandia
Kultura SolaDURANGO
Udala - AyuntamientoBAQUE
-C- & L-

Heineken

anboto
komunikabideak

berria

EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SALA

Coca-Cola

PLATERUENA KAFE ANTZOKIA - Landako etorbidea, 4A-48200 Durango - Tlf: 946 030 100 - kultura@plateruena.net - www.plateruena.net

Iritzia

> GUTUNAK



gutunak@anboto.org
eguziateneko 17:00ak arteko epea

Durangon kultura bizitzeko

Hasteko, zorionak plateru guztioi!

Hamarkada bat baino gehiago da Durangaldeko herritarrei eta Euskal Herri osoko kulturazaleei Plateruena zabaltzeko proposamena aurkeztu genienetik. Egitasmo hura bizi-bizirik den proiektua da gaur egun. Eta ospatzeko ez ezik, aurrera begira go-goeta egiteko sasoia da orain.

Durangoko Udalak Landakoko hiltegi zaharra ustiatzeko lehiaketa publikoa aurkeztu zuenean, Berbaro elkarteak kafe antzoki eredua proposatu eta ustiatzeko lizentzia eskuratu zuen. Herritarrek sostengu handia eskaini ziguten: 870 bazkideren artean 473.000 euroko ekarpena. 2004ko urriaren 28an ateak zabaltzeko, baina, ia milioi bat eta erdi euroko inbertsioa egin behar izan genuen guztira. Udalak ez zuen horretarako diru-laguntzarik eman, ustiatzeko aldia amaituta instalakuntza guztiak (eraikina eta azpiegitura teknikoak) bere esku geratuko diren arren. Ordutik hona, kultur jardunari dagokionez, azpiegitura profesionala eta kalitateko programazioa eskaini diegu mundu osoko sortzaileei eta Euskal Herriko kulturazaleei, bereziki Durangaldeko herri-bizitza aberastuz. Badira urte batzuk, gainera, programaziotik sorkuntzarako jauzia egin genuela Durangaldeko hainbat sortzaile eta eragileekin elkarlanean, ekimen propioak eta parte hartzaileak eskainiz.

Ekonomikoki, Plateruena zabaldua ostalaritzak diru-irabaziak emango zizkigula aurreikusitu genuen, diru hori bankuei mailegua bueltatzeko eta kultur proiektuetan inbertitzeko asmoz. Eta hala egin dugu orain arte. Kontsumo-ohiturak, ordea, asko eta azkar aldatu dira urteotan, eta azken urteotako krisiak larritu egin du egoera. Udalaren jabetzan egin genuen inbertsioari buelta emateko zailtasunak ditugu gaur egun.

Edozelan ere, Plateruena egitasmoaren garrantzia eta gaur-kotasuna berresten digu EHUKo Gizarte Zientzietako kideekin batera egin berri dugun Delphy azterketak. Kultura, ostalaritza, hezkuntza, politika eta komunikabide arloko 30 durangarrek erakutsi digute Plateruenaren nortasuna ondo ezagutzen eta begi onez ikusten dutela. Zelan ez, zer hobetua ere badugula ikusi dugu. Helburua argia da: Durangoko kultur gune herritarra izatea.

– Durangaldeko kultur sortzaile eta eragileekin: sorkuntzen erakusleho eta formazio zein programazio gune diziplina arteko adostu eta gartzeko.

– Durangaldeko kulturzale eta herritarrekin: kultur proposamen ohikoak ez ezik geure-geureak eta parte-hartzaileak auzolanean antolatu eta gozatzeko.

– Durangoko Udal eta alderdi politikoekin: udal guneekin elkarlanean herriko kultur bizitza aberastuko duen egitasmoa adostu eta bideragarri egiteko.

Horui guztia ondo egiteko behar den denbora hartuko dugu, EHUKo Parte Hartuz ikerketa taldearekin elkarlanean. Orain arteko eskaintza eta lana jarraituz eta hobetuz, urtebeteko bidea egingo dugu, 10. urteurrenean egitasmo berritua plazaratzeko.

Ez diamante ez perla ez urregorririk, alegrantzija baino ez dago hoberik!

Plateruena Kafe Antzokia

Castet libre

Orain dela hogeita bat urte jaio zen. Zaldibartar ezkertiar eta abertzaleek ireki zituzten bere ateak. Bere izena, Castet Kultur Elkartea Herriko Taberna, Abellaneda Batailoiko Iñaki Castet eta berarekin batera hildako berrogei gudari baino gehiagori omenaldia eginez. Hasierako pausoak ez nituen ezagutu, baina ondo irakatsi didate Castet Elkartearen ibilbidea zein den. Zaldibarko gazte askorena bezala, nire gaztetasuna Herrikoan bizitako momentuekin lotuta dago: Castet Elkarte da nire lagun

eta ingurukoen topagunea, bertan egin naiz Ezker Abertzaleko militante. Castet Elkarteak antolatutako bazkari, hitzaldi, bertso saio, kontzertu eta kultur ekintzetan ere egon naiz beste hainbat zaldibartarrekin batera.

Castet Elkartearen buruhaustea duela 11 urte hasi ziren, Espainiako Auzitegiek jomugan jarri zutenean. Polizia etorri zen gure etxea miaztera. Garai hartan Castet Elkarteak langilea nintzen. Gaur egun Elkarteak lehendakaria naiz, horregatik jadanik bi aldiz joan naiz Madrilera Auzitegi Nazionalera, 74 euskal militante eta 110 Herriko Taberna eta kultur erakundetako ordezkariekin batera. Bertan deklaratzeko tokatzen zaidanean honakoa hau esango dut: Castet herriko herritarren sortu zela eta beti egin dugula Zaldibar eta Euskal Herri justu eta libre baten alde. Auzitegi Nazionalak ezin duela Castet epaitu, Zaldibarko herriak argi duela epaia zein den, Castet zabalik eta libre nahi du, zaldibartarren topagune izaten jarrai dezan.

Eneritz Azpitarte, Zaldibarko Castet Elkarteak Lehendakaria

Ludotekako gorabeherak

Elorrioko Intxorta asti elkarteak begiraleak gara eta adierazi nahi dugu gure desadostasuna Elorrioko ludotekaren leku aldatzarekin. Hona hemen gure arrazoiak.

Hasteko, kurtsua hasita dago eta aldaketa horrek erritmo apurketa handia ekarriko du. Ludotekako begiraleentzako, Intxortako begiraleentzako eta, batez ere, gure eta euren umeentzako. Ludotekako lokala lekuz aldatu behar bada ados gaude, baina ez dugu uste orain, bat-batean, horrelako aldaketak onuragarriak direnik. Bestalde, jakinarazi nahi dugu gure lokala Elorrioko udal liburutegiaren gainean kokatuta dagoela, horrek suposatzen du zarata handia sortuko dela, eta horren ondorioz egokitze obrak egin behar dira. Horrek kostu ekonomiko handia suposatzen du, ez dena inbertsio bat, aldi baterako egonaldia izan ahal delako.

Hari beretik, abendu eta urtarrilean izango dira lanak, eta gogorarazi nahi dugu, ikasleok azterketa garaian egongo garela. Zelan da posible obra batzuk burutu nahi izatea garai horietan? Ez dute ikasleengan pentsatzen? Horrekin esan nahi dugu ludoteka aldatetako esparru handiago batean eragingo duela. Eta horrela bada, zer gertatuko da gure egunerokotasunarekin? Nora joango gara Intxortako kide zein umeok? Kokapenari dagokionez, 3. pisu batean gaude, eta umeak gora eta behera ibiliko dira kurtsu osoan, istilu handiak sortu eta zarataren arazoa mantenduz.

Era berean, aurturteurrenaren ospatuko dugu eta horrek lan bikoitza suposatuko digu, denbora bikoitza beharrra dagokionez, eta lokalaren erabilera bikoitza. Ezin izango dugu lan egin gure lokalean bertan ludotekako kideak oztopatuko ditugulako eta baita eurek gu ere. Eta ez dugu uste arazo horren irtenbidea kultur etxeko beste lokal bat eskaintzea denik, zeren eta guk gure lekua, gure materiala, gure baliabideak behar ditugu egunero lan egiteko, eta irtenbide oso txarra da. Lokala elkarrekin banatzeak beste arazo batzuk sortu ditzake. Esaterako, gure materiala eta euren espazio berean egongo dira eta istripuak edonon gerta daitezke, areago bi elkarteek umeekin lan eginda. Zer gertatuko litzateke gure umeak gurea ez den materialarekin ibiliz gero? Zerbait apurtzen bada, nork ordaindu beharko du? Beraz, uste dugu arrazoi trinkoak ditugula esku artean, baina gure hitzaren oihartzuna Anboto ez den beste leku batera helduko da? Hau da, udalarekin entzungo gaituzte? Uste dugu, gure lana lan boluntarioa denez, eta gazteak garenez, ez gaituztela serio hartzen, hots, gure lana ez da baloratzen, beraz, gure iritziak ez du baliorik, eze-rezean gelditzen da.

Intxorta asti elkarteak

SEI HANKAKO MAHAIA

IDOIA AGORRIA

PSE-EE



Durangok plan ona behar du, Tokiko Agenda 21 Plan ona

Lehenik eta behin, eskerrak eman behar dizkiegu Tokiko Agendako foroetan beren iritzia eman duten herritarrei. Hala ere, aditzera eman behar dugu prozesu horrek hutsune ugari izan duela. Izan ere, 2012an bi bilera baizik ez dira izan, eta 2013an bat. Lehenengo plana prestatzean, berriz, hamar bilera egin ziren ekitaldi bakoitzeko. Bistan denez, oraingo hau ez da parte-hartzean oinarritutako prozesu bat izan.

Bestetik, nabaria da aurkeztu den plana “jendeari begira egindako testu” bat dela, barne hartzen dituen proiektu asko “maiz eskatu direlako, eta honezkero gauzatuta egon beharko luketelako”: esate baterako, Urki-Hegoaldeko kanpoko ingurabidea (5.863.000€). Proiektu hori 2010eko aurrekontuetan sartu genuen, eta abian egon beharko luke honezkero. Gainera, azpiegiturretan sartu diren 5.000.000 euroak ez dira benetakoak. Durangoko Merkataritza Biziberritzeko Plan Bereziko diru-laguntzak dira horiek, eta oraindik ez daude bermatuta. Euskarari dagokion kontu-saila sartu da, planerako aurreikusitako 8 urteekin biderkatuta (2.796.000€). Hala ere, kalkulu hori ez dator bat oraingo egoerarekin, bi urte baitaramatzaugu aurrekontuak luzatzen. Beste horrenbeste egin da Berdintasun Sailarekin (1.112.000€) eta Gizarte Ekintzarekin. Horrez gainera, planean jasota dauden ekintza gehienak aspalditik ari dira egiten hainbat sailen ardurapean.

Guk berriz doitu nahi dugu plana, epe laburragoak ezarri nahi ditugu, eta jendearen partaidetza gehiago bultzatu nahi dugu, adostasun gehiago lortze aldera. Horrez gainera, benetako kontu-sailak dituzten ekintzak sartu nahi ditugu planean, zehazki, jendarteko iraunkortasunaren esparruan, orain arte bereziki landu dugun ekonomia- eta ingurumen-erloko iraunkortasuna bazter utzi gabe. Oinak lurlean ondo finkaturik, ahalik eta ekintza gehienei eman behar diegu lehentasuna, enplegua sortzeko. Azkenik, gogora ekarri nahi dugu udal honetan enplegua lortzeko xedearekin egin diren proiektu bakarrak sozialistok egin ditugun proposamenen emaitza izan direla.

Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2013ko urriaren 31a
11. urtea - 520. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia eta Amaia Ugalde.
Maketazioa: Eider Alberdi.
Zuzentzailea:
Jon Ander Urkiaga.
Argazkilariak: Kepa Aginako, Zaloa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

Kantuaren Kantoia eguaztenetan zabalduko dute, azaro honetan

Aurreko lau edizioetan bezala, lau musikari gertutik kantuan eta kontuka entzuteko aukera eskainiko du Durangoko Platerueneko Kantuaren Kantoia ekimenak. Azaroaren 6an hasiko da

> ITSASO ESTEBAN

Azken urteetan ez bezala, eguaztenetan izango du, aurten, Durangoko Platerueneko Kantuaren Kantoia hitzordua. Iazko formatu eta filosofia beragaz, solasaldia eta zuzeneko emanaldi akustikoak uztartuko dituzte asteroko saioetan, bertaratzen diren entzuleek musikariak gertu-gertutik ezagutzeko aukera izan dezaten. Aurreko urteetan bezala, Jonan Fernandez kazetari durangarrak gidatuko du solasaldia.

Bosgarren edizio honetan ere, lau emanaldi izango dira, azaroko lau eguaztenetan, Plateruenean. Beste urte batzuetan bakarlariek eta taldeek osatu badute kartela, aurten, musikari gazteen taldeak dira gonbidatu guztiak.

Rocka oinarri hartuta, eta folkera, contryra, edota punkera gerturatuta, aparteko estiloa jorratzen duten lau talde, aurten

Mungiako Belako laukote gazteak zabalduko du, datorren eguaztenean, 2013ko Kantuaren Kantoia. Iaz Gaztea irratia ren maketa lehiaketa irabazi ostean, *Eurie* izeneko diskoa kaleratu zuten martxoan, eta uda musika jaialdi handietan jotzen eman dute. Euren ibilerei, taldearen hasierei, gustu musikalei eta abarri buruz jardungo dira.

Mungiako Belako laukote gazteak zabalduko du, datorren eguaztenean, 2013ko Durangoko Platerueneko Kantuaren Kantoia

Azaroko hurrengo hiru asteetan, bestalde, Audience, Napoka Iria eta Jupiter Jon taldeak izango dira Kantuaren Kantoian ariko direnak. Rocka oinarri hartuta, folkera, contryra, edota punkera gerturatuta, aparteko estiloa duten taldeak dira guztiak ere. Euskal Herriko musikagintza berriztu duten taldeak.

Mistress games izeneko diskoa kaleratu zuen uda hasieran Audience talde gernikarrak. Rock eta country kutsuko bost kanta biltzen ditu Bilboko Kafe Antzokian aurkeztu zuten disko horrek. Azaroaren 13an, berben eta doinuen bidez aurkeztuko dituzte kantok, Plateruenean, lagunarteko giroan.

Eibarko Napoka Iria taldeko Miren Narbaiza eta Ander Mujika ariko dira Kantuaren Kantoia ren hirugarren hitzorduan. *Arnasten ikasteko berriz* bigarren diskoa kaleratu berri du bikoteak, eta azaroan bertatik bertara izango dira Durangoko Plateruenean.

Azaroaren 27ko Irungo Jupiter Jon taldekoen emanaldiarekin amaituko da aurtengo Kantuaren Kantoia.

Kantoiko berri kroniketan

Eguaztenetako Kantuaren Kantoiko esan eta izanen berri, Durangaldeko lau musikazalaren lumatik jasoko du, barikuro, Anboto astekariak. Bezperako sentsazioen berri kroniken bitartez emango dute, Ainhoa Urien edo Igor Elortza moduko eskualdeko kulturzaleek.



Belako - AZAROAK 6



Audience - AZAROAK 13



Napoka Iria - AZAROAK 20



Jupiter Jon - AZAROAK 27

“Inguruko taldeengandik desberdinak izan gara beti”

Lander Zalakain bateria-jotzailea, Belako taldearen parte hartzeaz

Zelan hartu duzue Kantuaren Kantoian jarduteko gonbita? Ilusio handia egin digu. Taldeko mutilak, Josu eta neu, joango gara, eta hasieran gitarra birekin zer edo zer egitea pentsatu genuen arren, emanaldia

solasaldira mugatu, eta instrumenturik barik aritzea erabaki digu. Solasaldia izango da hari nagusia, eta baliteke gure bideoklipen bat, edo gustuko dugun talderen baten kantaren bat edo irudiak tartekatz

zea. Jendearen jakin-minaren arabera moldatuko dugu saioa.

Zergatik erabaki duzue kantarik ez eskaintzea?

Taldeakide bi bakarrik joango gara Durangora, eta guk biok

bakarrik jotzeak kantak gehiegi moldatzea eskatuko lukeela uste dugu. Egia esan, ez gara akustikoen oso zaleak. Beste zerbait eskaini gura dugu: jendeak nahi duena galdetzeko tartea izan dezala, gure eraginak zeintzuk diren azaldu...

Berezia da publikoarekin hain hartu-eman zuzena izatea?

Bai, eta Plateruena bera ere berezia da guretzat. Orain urtebete inguru Berri Txarrak taldearen aurretik jo genuen bertan, eta oroitzapen oso berezia daukagu.

Duela aste bi egon zarete Durangoko Txosnagunean kontzertua eskaintzen. Zelakoa izan zen kontzertu hori?

Festa giroan jo genuen, eta hori ere gustatzen zaigu. Ondo dago Bartzelonan eta Madrilen jotzea, baina Euskal Herrian jotzea da gehien gustatzen zaiguna. Oso ondo pasatu genuen Durangon, eta goizaldera arte egon ginen, oso gustura.

Zelan hartzen dute herri txikiak jaietan zuen musika?

Batzuei arraro egiten zaie gure musika, baina Durangon, esaterako, uste dut publikoa ohituta dagoela bestelako doinuak

entzutera. Horretan asko lagundu duela uste dut, besteak beste, Plateruena.

Euskal Herriko musika eszenan ezohikoak dira zuena moduko musika eskaintzak. Horregatik arraro?

Ez dakit, baina hori aldatzen lagundu gura genuke, ahal den heinean esparrua zabaltzen. Hori, dena den, urte askoko lana da, eta ez du talde bakar batek lortuko. Inguruko taldeengandik desberdinak izan gara beti, baina guri gustatzen zaiguna egiten dugu. Beti pentsatu izan dugu: “Jendea gustatzen bazaio ondo, eta bestela, berdin”. Oso musika gustu antzekoak dauzkagu laurok: gure gurasoengandik jasotakoak.

Zertan zabiltzate orain?

Martxoan kaleratu genuen *Eurie* diskoa, eta gelditu barik gabiltza harrezkero. Orain geldialdi txiki bat egin gura dugu, abendura arte kontzertu gutxiago eskainita. 2014 urtea gogor hasteko indarrak hartuko ditugu, udan ahalik eta jaialdi gehienetan parte hartzeko. Nork daki, beharbada, 2014an bigarren disko bat ere etor daiteke. Urte betea-betea izango da datorrena ere.



Lander Zalakain, Josu eta Lore Billelabeitia eta Cristina Lizarragak osatzen dute Belako taldea.

> KONTZERTUAK

Abadiñoako organoak 100 urte bete izana ospatzeko, musika

San Trokaz elizako organoaren urteurrenerako 3 kontzertu antolatu dituzte

> ITSASO ESTEBAN

Bertako organoaren mendeurrena ospatzeko, hiru kontzertu antolatu dituzte Abadiñoako San Trokaz elizan. Azaroaren 9 eta 30ean, eta abenduaren 28an izango dira kontzertuak, Bizkaiko Organoen Adiskideen elkar-teak antolaturikoak hirurak, eta udalak babestu dituenak.

Organo eta txirula kontzertua izango da lehenengoa: azaroaren 9an. Jesus Martin Moro organistak eta Natacha Korszuk flautistak eskainiko dute emanaldi hori. Zikloko guztiak bezalaxe, 20:00etan hasi, eta doakoa izango da kontzertua.

Jesus Moro organistak eta Natacha Korszuk flautistak eskainiko dute azaroaren 9ko emanaldia

Bizkaiko Organoen Adiskideen elkar-teak antolatu ditu kontzertuak, eta Udalak babestu

Bigarren emanaldia, azaroaren 30ean izango da. Egun horretan, Bilboko Begoñako Andra Mari Basilikako organista gazteak, Miriam Cepedak, joko du. Getxoko Andres Isasi abesbatzak lagunduta, eta Imanol Ormazaren zuzendaritzapean jardungo dira organista eta Getxoko abesbatza.

Abenduaren 28an, Thomas Ospital eta Yoann Tardivel organo-jotzaileek eskainiko dute San Trokaz elizako organotik, lau eskutarako kontzertua. Gazteak izanagatik, askok Europako organistarik onenetarikotzat hartzen dituzte Ospital eta Tardivel.



GEURE DURANGALDEA

FERNAN RUIZ

Berbaroko kidea

Atea jo du

Udagoienera, serotonin maila jaitsi egiten omen zaigu, urteko beste sasoiekin alderatuta. Neuronen arteko lotura egiteko beharrezko transmisorea da serotonina. Gutxi dugunean, kalteak ekar diezazkiguke: depresioa, sumina... Ez dira, baina, sasoiko gaitz horiek jota hemen, Pinondon, artatzen dituzten atzerritarrak, migrazioak sortutako estresak jota-koak baino.

Atearen beste aldean geratu da zabaltzera joan naizen arte, ez omen du entzun (edo ulertu) nire *sartu*, *sartu*! Lagun batekin etorri da, bakarrik ibiltzeak arazoak sortzen baitizkio, are gehiago atzerritarra izanik. Gatazka latzaren ondorioz, berarentzat mundua soinu gabekoa da umea zenetik. Hemen denbora gutxi daramen arren, ohartu da gure lurrek beste usain, kolore eta forma batzuk dituztela, besteetatik bereiziak... Horrela jakinaz dio bere lagunari, neuri esateko. Oraindik gogoan ditu bere sorterriko doinu maiteak, urrun, lauso...

Adituek diotenez, zentzumenen arteko liskarra sortzen denean, ikusmena gailentzen zaie besteei, beti. Sinesgarriagoa da begien aurrean duguna, entzun, ukitu edo usaindu dezakeguna baino. Bethok oso garatua du ikusmena, gai da edozer zehatz-mehatz deskribatzeko. Hasi da barrenean gordeta dituen irudi gordinak zehazteko ahaleginean. Uzteko eskatu dio bere lagunak; eskaileretan gora galdu ditut.

Badaude geure herrian bortizkeria jasandakoak; irudi lazgarriak dituzte garunetan itsatsita, eten barik ziztaka kultura bat gorrotatzeraino. Egoera ezin gainditu, gortu ez ezik, ikusmenak itsututa bizi dira. Miresten dut Bethoren jarrera. Orain irakurtzen ikasten ari da.

> KRONIKA > BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2013

Kartzelako saiorik onena, Amurizarena

Saio polita izan zen larunbatean, Oionen: hainbat biderrez berotu zuten giroa bertsolariek

> KRISTINA MARDARAS

Bertso saio polita gozatu genuen larunbatean, Oionen. Hiru bizkaitar Etxahun Lekue Etxebarria, Miren Amuriza Plaza eta Iratxe Ibarra Foruria, lapurtar bi Eneritz Zabaleta Apaolaza eta Maddi Sarasua Laskarai, eta arabar bat Manex Agirre Arriolabengoa. Izen eta bi abizenekin aurkeztu zituen bertsolariak Maite Berriozabal Berrizbeitia Berrizko gaijartzaile argiak. Bertsozale elkar-teak ama ere kontuan hartzen du, amaren abizenek, ama ere badaukatela aditzera emanda. Pozten naiz. Bakoitzari berea!

Saio politaz gozatu genuen. Hainbat biderrez berotu zuten giroa bertsolariek txalo zaparradak lortuta. Amaieran saioa epela izan zela, goirik ez zuela jo eta horrelakoak entzun

nituen. Bada, nire uste apa-lean, saio ona izan zen. Behar-bada, Amuriza hobeto ikustea gura genuen, baina ez zuen bertso txarrik egin. Kartzelako saiorik onena berea izan zen,

Manexegaz egin zuen saioan ekonomia-gizatasuna bikoteaz esandakoa, eta aberatsei botatako desioak "euren pisuaz (di-ruarena) erori bitez berandu baino lehenago" asko esaten du Mirenen izaeraz. Etxahunekin 8ko txikian bikain ibili zen. Etxahunek bidea eman, Mirenek hartu, eta Arte Ederretako ikaslerik onenak legez pintzela luzatu eta erabili zuen. Esan behar dena esan, eta gehiago aditzera emanda.

Eta Amurizaren hizkera?

Garbia eta aberatsa "puri-purian", "ateratzen zeure onetik", "erori bitez" eta bestelakoak belarrien gozagarri. Zerbait zuzentzekotan bizkortxoago kantatzeko eskatuko nioke. Ez dakit bildurragaitik-edo, baina esanari distira kentzen diolakoan nago.

Puntuazioa? Amurizak usaindu zuen ez zela sailkatuko: "Eskerrik asko, gure bidea hemen amaitu da jada". Animo Miren, zeuk esan legez, bide bakarra aurrera egitea da.



Argazkia: Alberto Elozegi.

hitz
liburudenda

artekalea, 14
durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Con los ojos cerrados...
ARA MALIKIAN & FERNANDO EGOZCUE QUINTETO

Azaroaren 2an • 20:00etan

San Agustín KULTUR GUNEa

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

URRIAK 31 - 20:00etan DOAN PLATERUENA URTEURRENA
Plateruena bederatzi garren urteurrenko ekitaldia

AZAROAK 3 - 17:30ean 3 euro / DOAN KONTU KONTARI
Maite Franco Ipuin kontalaria

AZAROAK 7 - 21:30etan DOAN DURAN(H)OTS JAM SESSION
Musika zuzenean

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

> ANTZERKIA

Emigrazioari buruzko 'Inungane. Sustraiak airean' emanaldi bikoitzean eskainiko dute

Zilar Asterako sorturiko 'Inungane. Sustraiak airean' San Agustinen eskaniko du Karrikak



Martxoan estreinatu zuen Karrika Antzeki Taldeak 'Inungane. Sustraiak airean' antzezlan. K.Aginako.

> ITSASO ESTEBAN

Aurten gaitzat emigrazioa izan duen Durangoko Platerueneko Zilar Asterako sortu zuen Karrika Antzerki Taldeak *Inungane. Sustraiak airean*. Datorren astean, obraren emanaldi bikoi-

tza eskainiko dute taldearen
entseguetarako lekua ere baden
Durangoko San Agustin kultur-
gunean. Azaroaren 7an eta 8an,
20:00etan eskainiko dute obra.
Eneko Sagardoyk eta Jose Mar-
tin Urrutia *Txotxe*-k idatziriko

Ahalik eta ikuspuntu
zabalenetik begiratu gura
izan diote emigrazioaren
gaiari Karrikako sortzaileek

testuan oinarrituriko lana da *Inungane. Sustraiak airean*, eta azken horrek zuzendu du obra. Ikuskizunean oholtzan diharduten aktoreak, aldiz, Endika Zamalloa, Joana Ocaña, Nazaret Froufe, Uxuri Gallastegi, Eneko

Sagardoy, Miren Erdoiza, Alicia
Otxoa eta Jon Gorroño dira.

Antzezlanaren sortzeko, etorkinen azaletik jardun gura izan dute Karrika taldekoek: “Sorterritik irteko arrazoiak zeintzuk diren, zer sentitzen duzun...”, galdetu diote euren buruari, Jose Martin Urrutia *Txotxek* azaldu zuenez. Ahalik eta ikuspuntu zabalenetik begiratu gura izan diote emigrazioaren gaiari, eta euren burua errealitate horretan kokatu.

Hainbat ezaugarri komunean eduki arren, etorkin bakoitzak bere sentipen eta bizipenak dituela adierazi gura dute Karrika taldeko sortzaileek, eta antzezlanean, elementu plastikoekin eta argiztapenarekin iolastuz adierazi dute hori.

Donostian, 'Lurra astinduz'

Beste hitzordu garrantzitsu bat ere badauka azaroan, 1998 urtean Durangoko Institutuko antzerki tailerretik jaio zen Kariika Antzerki Taldeak. Azaroaren 22an eta 24an, Donostiako Antzoki Zaharrean antzeztuko dute *Lurra astinduz*. Altxamendu eta garaipen frankistaren osteko urteetako durangarren bizipenak kontatzeko helburuz sortu zuten obra. Durangoko bombardaketari buruz 2007an taularatu zuten *Martxoak 31* antzezlanari jarraipena emateko sortu zuten *Lurra astinduz*.

> ZINEMA

Egun bakarrean sorturiko film laburren jaialdia antolatuko dute

24 ordu izango dituzte parte hartzaileek euren lanak pentsatu eta grabatzeko

> I.E.

Elorrioko Arriolan elkartuko dira zinemagile eta zinemazaleak bihar eta etzi. Izan ere, 24 Ordu Digitalean izeneko film laburren lehiaketaren zortzigarren edizioa antolatuko baitute bertan. Bihar, 17:00etan elkartuko dira lehiaketan parte hartzeko izena eman dutenak, Elorrioko antzokian. Ordu horretan emango dizkiete antolatzaileek lanak egiteko oinarriak: filmean erabili beharreko objektuen

zerrenda, filmean agertu beharreko esaldia... Gehienez ere 24 ordutan, pentsatu, grabatu eta editatu behar da lana, eta asko jota, lau minutu iraun dezake.

Ohi bezala, Elorrioko
Arrapalan antzerki
taldeak aurkeztuko du sari
banaketa ekitaldia

Denentzako berdina den abiapuntu batetik, partaideek gauzei zenbat ikuspuntutik begira diezaieketen erakutsiko du azaroaren 2ko emanaldiak. Ohi bezala, egun horretan egingo dute Elorrioko 24 Ordu Digitalean film laburren lehiaketaren sari banaketa ekitaldia.

Sari nagusia 700 eurokoa da, eta 500 euroko beste bi sari ere banatuko dituzte. Herriko Arrapalan antzerki taldeak aurkeztuko du sari banaketa ekitaldia.



Iaz, Elorrioko Arriolan egindako sari banaketa ekitaldia.





Olgetan Iudoteka

ORDUTEGIA

astelehenak 17:00-18:00 / 18:00-19:00

astearteak 17:00-18:00

asteazkenak 17:00-18:00 / 18:00-19:00

eguneko sarrera
(txanda bat: ordu 1)

0,5€

azaroaren 3an
17:30ean Maite Franko
ipuin kontalaria

Sarrera 3€

Berbaroko bazkideek doan!

informazio gehiago:
www.berbaro.com



marrazketa
eraikuntza
antzerkia
irakurketa

asteazkenetan
tailer bereziak!!!

Kirola

Aitor Calzada eta Jon Jimenez | Abadiñoako Lagun areto-futbol taldeko kapitain eta delegatu ohia

“Ezer ez genekiela hasi ginen areto futbolean, eta hiru igoera lortu ditugu”

Abadiño Lagun taldea desagertu egin da; Euskadiko Futbol Federazioak ezarritako eskakizunei ezin izan diete aurre egin; Bigarren Erregionalean hasi ziren eta Euskal Ligan amaitu dute zortzi urteko abentura



Abadiñoako Lagun sortu zenetik, taldeko jokalariek izan dira Calzada eta Jimenez.

> JOSEBA DERTEANO

Sortu zutenetik talde ia bera-ri eutsi izan diote. Lagunarte-ko talde bat izan dira. Baina areto-futbola serio hartu duen lagunarte bat, zortzi urtean hiru igoera lortu dituztelako. Behin taldea desagertuta, egindako bidea errepasatzeko sasoia da.

Zeintzuk dira Abadiñoako Lagun desagertu izanaren arrazoiak?
Aitor Calzada: Liga hasi baino egun bi lehenago desagertu zen. Hainbat arrazoi egon dira, baina nagusiak diru kontuak eta entrenatzaile falta izan dira. Gutxi gorabeherako finantziarioa batu ostean, entrenatzaile bila hasi ginen. Nazio mailako titulua izan behar zuen, Federazioak Euskal

Ligako taldeei ezarritako eskakizunetako bat delako.

Jon Jimenez: Entrenatzaile askori deitu genien, baina askotariko arrazoiengatik ezin izan dugu bat lortu. Entrenatzaile barik jokatzearren isunak ipintzen dituzte, asterik atera pilatzen doazenak. Ondorioz, ez zen bidegarria.

Euskadiko federazioaren eskakizunak epe laburrera begira kaltegarriak direla uste duzue?
A.C.: Bai. Talde indartsu bat izanez gero, Federazioaren eskakizunak bete daitezke, baina gu lako talde berrientzako gaitza da. Bidean trabak eta trabak aurkitzen badituzu, azkenean, denei aurre egin ezinik zaude.

Batzuek diote Federazioaren eskakizun horiek barik, lagunarteko talde soiletan geratuko litzatekeela areto-futbola.

A.C.: Egia da azken aldian talde asko eratu direla, modan dago, baina teoria horri jarraituta, gaur egun eskualdean dauden talderik gehienak ez ziren existituko. Kuadrillak eta lagunak elkartu eta jokatzeko hasita sortu izan dira talde asko.

J.J.: Talde guztien atzean dirua eta baliabideak lortzeko ahalegin handiak daude. Borondate hori ere ezin daiteke gutxietsi.

Taldea desagertzea kolpe handia izan da jokalarientzat?

A.C.: Taldeari eusteko egindako batzar batzuetatik baikor eta ani-

moz beteta irteten ginen, eta egunak aurrera joan ahala kontuak ez zuela aurrera egiten ikusten genuen. Arazo bat konpondu orduko beste bat sortzen zitzaigun, eta denbora amaitzen zihoan.

J.J.: Liga hasi aurreko martitzen arratsaldean jakinarazi genion Federazioari ezetz, ez genuela liga hasiko. Pena izan zen.

Zer gertatu da jokalariekin?

A.C.: Batzuek areto-futboleant ez jarraitzea erabaki dute. Lau-bost beste talde batzuetara joan dira, batez ere, Sasikoara.

Zortzi urte iraun du Abadiñoako Lagunen abenturak. Zer azpimarratuko zenukete?

A.C.: Nik taldean genuen giroa

azpimarratuko nuke. Partiduan denetarik esaten genion elkarri, baina behin partidua amaitua, beste kontu bat zen. Emaiza edozein izanda ere, lagunak ginen.

J.J.: Lortu dugun guztia nabarmenduko nuke. Ezer ez genekiela hasi ginen areto futboleant, eta hiru igoera lortu ditugu.

Igoerak zelan gogoratzen dituzue?

A.C.: Lehenengoa horrexegatik izan zen berezia: lehenengoa izan zelako. Azkenengo igoera ere berezia izan zen, asko kostatu zitzaigulako, eta maila oso onean ibili ginelako. Benetan sentitzen genuen lana gogotik eta serio egin genuelako igo ginelako. Ez ginen lagunarteko kuadrilla bat bakarrik.

“

Bidean trabak eta trabak aurkitzen badituzu, denei aurre egin ezinik zaude azkenean”

Partidu berezirik gogoan?

A.C.: Derbiak beti izaten ziren bereziak, jende ezagunaren kontra jokatzeko genuelako. Bilbon, esaterako, ez genuen inor eza gutzen.

J.J.: Badago partidu bat gutako inork ahaztuko ez duena. Maila Gorenean, igoerarako borrokan, Saltzaileak arerio zuzenaren kontra etxetik kanpo jokatu genuen partidua. Galtzen gindoa zen, eta azken unean markagailuari buelta eman genion Gorka Murgoitiobernak ia geure areatik egindako jaurtiketa batez. Sinestezina izan zen.

A.C.: Berrizera gu animatzen etorri diren zaleak ere gogoan ditugu. Eskerrak eman gura dizkiegu, eta baita babesleei eta udaletxeari ere.

J.J.: Penatxo bat geratzen zait: Etxean, Traña-Matienako azpiegiturak ezin estreinatu izana.



> FUTBOLA

Berriz zulotik irten da denboraldiko lehenengo garaipena lortuta

Peio Tinocoren 'hat trick' bategaz bideratu zuten Artibai taldearen aurkako garaipena; asteburuan, Bermeo azken sailkatua hartuko dute etxean, eta irabaziz gero, sei puntura utziko dute



Etxean denboraldiko lehen garaipena bilatuko du Berrizek. Jon Iglesias.

> JOSEBA DERTEANO

Joan zen asteburuan, seigarren jardunaldiari zegokion partiduan, Berrizek denboraldiko lehen garaipena lortu zuen, Markinan, Artibai taldearen aurka. Horrela, jaitsierako postu bietatik irten dira Lehen Erregionalean. Asteburu ho-

netan, etxean, Bermeo azken sailkatuak bisitatuko du Berrizburu, eta zaleen aurrean lehen garaipena lortzeko hitzordu aproposa dirudi.

Berrizek mailari eustea du helburu, eta bide horretan, Bermeo arerio zuzena da. Oraindik ez du partidurik irabazi (bost

porrot eta berdinketa bat), baina, hala ere, gertu daude: asteburuan Berrizburu jokoan egongo diren hiru puntuen alde bakarrik dago talde bien artean. Gutxienez, Berrizek denboraldiko unerik onenean hartuko du kostaldeko taldea: "Behar genuen Artibairen kontrako garai-

pena. Batez ere, aurretik merituak egin izan ditugulako. Maila hau oso gogorra da, eta aurrean asmatzen duenak eramaten ditu partiduak. Guk hainbat partidutan aukera asko izan ditugu, baina ez dugu asmatu. Markinan asmatu egin genuen, eta pozik gaude. Irabazi zein ez, taldeak beti ematen du aurpergia", dio Kepa Uriarte entrenatzaileak. Markinan, aurpegia emateaz gainera, zehatz aritu ziren; batez ere, Peio Tinoco aurrelaria, eta bere *hat-trick*-a funtsezkoa izan zen garaipena lortzeko.

Jokalari berri asko

Berrizen liga hasiera kaskarra ulertzeko hainbat faktore daude. Alde batetik, 20 jokalaritik 15 berriak dira, eta, oro har, oso gazteak. Bestetik, liga hasieran igoera postuetan edo euren bueltan dabiltzan Ermua eta Astrabudua taldeen kontra jokatuko dute. Gainera, klubak zuzendaritza berria du, eta egoerari neurria hartzen dabilta.

ADITUAREN TXOKOA



Eneritz Iturriaga

Txirrindulari ohia

Kirolaren geroa gudan dago

Aurreko asteburuko Atletismo Egunean zur eta lur geratu nintzen Ezkurdin ikusi nituen ume guztiekin, euren irribarreagaz, euren irabazteko goseagaz, euren indarrak probatzeko gogogaz, profesional on bat izateko euren ilusioagaz.

Geraxanek (korrikalaria) eta biok egindako erakustaldia zein gaueko krosean David Garciak eta gainontzekoek egindako lana izan zen ume horien gogo piztu zuena, handitzerakoan eurak ere gure antzera ibiltzeko gogo hori. Bati baino gehiagori entzun nion, bestelako lasterketa batean baino jende gehiago zegoela. Hori gertatu zen umeei lehentasuna eman zitzaielako, eta horrek guraso eta senitartekoen interesa erakarri zuen. Beste datu interesgarri bat: Espainiako Itzulia hasi aurretik juniorren lasterketa ere egiten da, eta ume guztien ilusioa eta bizipoza da gehien nabarmentzen dena. Nire ustez, hori landu behar da, harrobi barik ez dugu profesionalik izango, baina euren gogo eta ilusio barik, ez dugu ezer izango. Akorduan dut, era berean, nik umeei mendiko bizikleta martxa bat egiten nuenean, euria izan edo ez, beti 100 bat ume izaten nituela. Datuak hor daude, eta lana egin beharra dagoela ere badakigu. Beraz, deia luzatu nahi diet, monitore, eskola, guraso eta senide guztiei, umeei euren jolasa profesio bihurtzen lagun diezaiegun, honek, etorkizunean, gure herria eta kirolariak famatu egin ditzan eta kirolek bizitzeko modua izan dezaten.

> ZIKLO KROSA

Europako 'tour' oparoaren ostean, etxeko estreinaldia

Munduko Kopa goi mailan hasi ostean, hurrengo hitzorduak Euskal Herrian ditu Egoitz Murgoitik



Zapatuan, Laudion lehiatuko du Murgoitik, eta, domekan, Muskizen.

Denboraldia indartsu hasi du Egoitz Murgoitik (Hirumet-Orbea). Orain arte, Munduko Kopako lasterketa bi lehiatu, eta bietan 10 onenen artean sartzeko borrokan ibili da. Estreina-kon, 14. amaitu zuen Herbehereetan, eta joan zen asteburuan, 12. sailkatu zen Txekiar Errepublikan. Europako *tour* txiki horren ondoren, datozen asteetan Euskal Herriko lasterketetan zentratuko da.

Izan ere, alde batetik, ez du Munduko Kopako beste hitzordurik azaroaren 23ra arte (Belgikan), eta, bestetik, hasi berria da ziklo-krosetako euskal egutegia. Zapatuan Laudion lasterketa lehiatuko du, eta domekan Muskizkoa. Hurrengo asteburuan, aldiz, Elorrioko proban parte hartuko du.

Joan zen asteburuan, Txekiar Errepublikan, igoera eta jaitsiera askoko zirkuitu gogor batean, ez zen ondo hasi, nahiz eta, lasterketari hirugarren leurretik ekin zion. Lehen kontrolgunetik 30. postuan igaro zen. Ordutik aurrera, atzetik aurrerako bidea hasi zuen, aurkariak bata bestearen atzetik gaindituz. Onenen taldera heltzera zihoa-nean, Sven Nys belgikarra erori egin zen. Murgoitik erorikoa sailhestea lortu zuen, baina segundo baliotsuak galdu zituen. Azkenean, 12. sailkatu zen, hamargarren helmugaratu zen Enrico Franzoiengandik 11 segundora.

Orain, Munduko Kopako sailkapen orokorreko hamargarren tokian dago kokatuta Murgoitik abadiñarra.

A CENTRAL
FORESTAL

Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa - 48215 Iurreta
Tel.: 946 205 187 - Faxe: 946 205 194

> ARETO FUTBOLA

Konpromisoa lagun, lau onenen artean ibili daiteke Sasikoa

Iazko estreinako urtean ikasitakoa lagun, eta jokalaria esperientziadunak gazteekin batuta, goian ibiltzeko aukera ikusten du Muñoz entrenatzaileak



Sasikoa taldeko jokalarien aurtengo argazki ofiziala. Ander Gallego.

> JOSEBA DERTEANO

Emakumeen areto-futbolean Sasikoa da Durangaldeak senior mailan daukan talde bakarra. Iaz sortu zuten taldea, eta estreinako urtean mailari neurria hartzea izan zuten helburu. Iaz batutako esperientzia lagun, aurtun taldearen garapenean beste pauso bat eman dezakeela uste du Francisco Muñoz entrenatzaileak.

Hori lortzeko osagai nagusia konpromisoa dela uste du Muñozek: “Jokalariek konpromisoa erakutsi dute orain arte, eta horrela jarraitu behar dugu. Denen aldetik konpromiso horri

eusten badiogu, nik taldeari lau onenen artean borrokatzeko aukera ikusten diot. Hala ere, jokalariek areto-futbolagaz gozatu dezatela da behinena”. Kontuan

Hirugarren jardunaldian lortu dute denboraldiko lehen garaipena, etxean Soloarte menderatuta

hartu behar da iaz goialdean ibili zen Gasteizko talde batek liga utzi duela, eta horrek gainerako

taldeen aukerak handitzen dituela. Sasikoak aurtun hamabi jokalariz osatutako taldea du, araudiak ahalbidetzen duen maximoa. Jokalari batzuk esperientziadunak dira, eta beste batzuk gazte-gazteak. Uztarketa hori aberasgarria izan daitekeela uste du Muñozek.

Ligako lehenengo partidu biak galdu egin dituzte Bilbo eta Leioa taldeen aurka. Joan zen asteburuan, aldiz, denboraldiko lehenengo garaipena lortu zuten etxean, Soloarte menderatuta (1-0). Asteburuan Bilbora doaz Stilo Berrio B taldearen aurka jokatzeko.

> AZOKA

Mendi materialen merkatua egingo du Alpinok

Urtero legez, Alpino Tabira mendizale taldeak bigarren eskuko materialen merkatua egingo du. Aurtun, azaroaren 8an (17:00etatik 21:00etara) eta 9an (11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara) izango da ekitaldia, Alpinok Goienkalen duen egoitzan.

Alpinok mendiarekin zerikusia duen materiala jaso (motxilak, arropa, kanpadendak, mendiko botak, eskaladarako materiala...), eta merkatuan salgai jarriko du. Horretarako, interesa duten herritarrek Alpinoren lokalera eraman dezakete salgai ipini gura duten materiala, azaroaren 5ean eta 7an, 20:00etatik 21:00etara.

> PADELA

Padel pistako zoruak aldatuko dituzte Durangon

Datorren astean Landako kiroldegian dauden padel pista bietako zoruak aldatzen hasiko dira. Padel pistak orain zortzi urte egin ziren, eta harrezkero, apurka-apurka, belarra soil-tzen eta harea bistaratzen joan da. Orain, belar artifizialeko zoru berria ipiniko dute, eta berroari zein bestelako baldintza klimatologikoei aurre egiteko prestatuta egongo da. Durango Kirolak-eko presidentea den Mari Jose Baliarren berbetan, “kontuan hartu behar da jende askok erabiltzen dituela padel pistak; horregatik, ezinbesteko deritzogu azpiegiturak behar den moduan egoteari”. Zoru berria jartzeak 10.208 euroko kostua izango duela jakinarazi dute.

> FRONTENISA

Alfredo eta Iñigo Praderarentzat Mallabiko torneo

Mallabiko areto-futbol taldeak herrian antolatutako frontenis torneo herriko bikote batek irabazi du: Alfredo eta Iñigo Pradera anaiek osatutako bikoteak. Finalean Elorrioko bikote bat menderatzea lortu zuten. Final estua eta oso lehiatua jokatu zuten, eta tanto bakarraren aldeagaz irabazi zuen etxeko bikoteak: 15-14. Arauzko 45 minutuak gaindituta lortu zuten Pradera anaiek garaipena eman zien tantoa.

Frontenis torneo urtero antolatzen dute, eta kirol kluberako dirua batzea izaten da helburu nagusietako bat.

AGENDA

> FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Elorrio-Sondika

. Barikuan, 11:30ean, Eleizalden.

MAILA GORENA

Zaldia-San Ignacio

. Barikuan, 17:00etan, Solobarrian.

LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)

Berriz-Bermeo B

. Domekan, 11:30ean, Berrizburun.

BIGARREN ERREGIONALA

Ezkurdi-Moraza B

. Zapatuan, 18:00etan, Arripausuetan.

Iurretako B-Zorrontzako

. Zapatuan, 16:00etan, Larrakozelaian.

LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)

Iurretako-Santutxu

. Zapatuan, 18:00etan, Larrakozelaian.

> ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Sasikoa-Bilbo futbol sala

. Domekan, 12:00etan, Landakon.

MAILA GORENA

Sapuberri-Elorrioko Buskantza B

. Zapatuan, 18:15ean, Landakon.

Kurutziaga Ikastola-Askartza

. Zapatuan, 19:45ean, Landakon.

LEHENENGO ERREGIONALA

Abadiñoko Gaztetxe-Isturiondo Zurbaranberri

. Domekan, 18:00etan, Traña-Matienako kiroldegian.

Elorrioko Buskantza C-Beseka

. Zapatuan, 18:00etan, Elorrian.

BIGARREN ERREGIONALA

Elorri Txiki-Mallabia B

. Zapatuan, 15:00etan, Elorrian.

Gu Lagunak-Usansolo

. Zapatuan, 17:00etan, Landakon.

Mendibeltz-Saltzaileak B

. Zapatuan, 15:45ean, Landakon.

> SASKIBALOIA

LEHENENGO MAILA (gizonak)

Tabirako Baqué-Azkoitia-Azpeitia

. Zapatuan, 17:00etan, Landakon.

BIGARREN ERREGIONALA

Julza-Zaldia-Beotibar

. Barikuan, 12:00etan, Zaldibarren.

Tabirako Baqué-Derio

. Domekan, 12:00etan, Landakon.

> ESKUBALOIA

BIGARREN MAILA

Ibaizabal-Urduliz

. Domekan, 10:00etan, Landakon.

> ATLETISMOA

Txirrindulari eta atletak parean Atletismo Eguneko erronkan

Joan zen zapatuan, Durango Kirol Klubak antolatutako Atletismo Egunean erronka berezi bi egon ziren, txirrindulariak atleten kontra esprintean parez pare ipini zituenak. Geraxane Ussia eta Orkatz Beitia atletak 60 metroko esprintak irabazi zituzten, eta Eneritz Iturriaga txirrindulari ohiak eta Illart Zuazubizkar txirrindulariak 90 metrokoak. Ondorengo Gau Krosa David Garcia durangarrak irabazi zuen. Garciak Urkiolako Maratoi Erdia ere irabazi zuen hurrengo egunean.



Atletismo Eguneko erronkako eta erakustaldietako irudiak. Aritz Zengotitabengoa.

➤ Aisialdia

➤ GAZTE GARA GAZTE!

Gazteen artean ikus-entzunezko sorkuntza euskaraz sustatzeko ekimen bi abian dira



Joan zen urteko 'Kameratoia' ekimeneko sari banaketako irudia.

> JOSEBA DERTEANO

Euskarazko bideogintza, eta, oro har, gazteen artean ikus-entzunezkoari lotutako sorkuntza sustatzeko helburua duten ekimen bi abiatu dituzte Durangaldeko Amankomunazgoak eta Euskaltzaleen Topaguneak. Bata, 12 eta 16 urte arteko Durangaldeko gazteei zuzenduta dago, eta bestea, euskaraz bideo sorkuntzan bidea egin gura duten 18 eta 35 urte arteko euskaldunei.

Euskaltzaleen Topaguneak *Kameratoia* ikus-entzunezko rallya antolatzen duen bederratzigarren aldia da aurtengoa, eta, lehenengoz, Durangaldean garatuko da, abenduaren 6tik 8ra, Durangoko Azokako Iru-dienea gunean.

Parte hartzaileei abendua-ren 6an jakinaraziko diete film laburra lantzeko gaia. Ordutik aurrera, 48 ordu izango dituzte

irudiak grabatu eta editatzeko.

Rallyan parte hartu ahal izateko baldintzak honako hauek dira: 18 eta 35 urte artean izatea, lanak euskaraz aurkeztea, eta berori lantzeko azpiegitura teknikoak norberak ipintzea.

Izen-emateko epea azaroaren 22an amaituko da, eta rallyaren oinarri guztiak zein izen-emate orria honako webgunean aurkitu daitezke: www.kameratoia.com. Epaimahaiak hiru sari banatuko ditu: 1.200, 900 eta 600 euroko sariak.

Antolatzaileen esanetan gazteek urtero erakusten dute irudimena eta trebetasuna badutela sorkuntzaren arloan. Urtetik urtera rallyra aurkezten dituzten sorkuntzak gero eta hobeak direla adierazi dute, bai teknikoki, bai edukiarri dagokionez.

Ikus-entzunezko guztiak abenduaren 8an, hamaikak baino lehen entregatu behar dira, DVD batean (Topaguneak Durangoko Landako Elkartegian duen egoitzan) zein Interneteko transferentzia bidez, alba@topagunea.org helbidetan.

Ikus-entzunezko ikastaroa
